

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak Haur Hezkuntzako eraikin berria inauguratu du Corellako ikastetxe publikoan

Jardun horren bidez, 1,8 milioi euroko inbertsioa eginda, pista estalia sortu da eta egon dauden patioak hobetu dira

Viernes, 27 de mayo de 2011

Miguel Sanz Nafarroako jarduneko Lehendakariak Corellako ikastetxe publikoaren zabalkuntza eta hobekuntza lanak inauguratu ditu gaur. Jardun horien bidez, 3 eta 6 urte bitarteko ikasleentzako – Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa- eraikin berria egin da eta egon dauden patioak zaharberritu dira. Lanak Nafarroa 2012 Planera bildu dira eta horiek egiteko 1.793.966 euroko inbertsioa egin da.



Sanz Lehendakaria, Corellako ikastetxe publikoaren gela batean.

Ekitaldi horretan, Lehendakariak gain, hurrengo hauek egon dira: Alberto Catalán jarduneko Hezkuntza kontseilaria; José Javier Navarro Corellako jarduneko alkatea; Pedro González Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako jarduneko zuzendari nagusia eta Jesús Gómez zentroko zuzendaria.

Sanz Lehendakariak hitzaldian nabarmendu duenez, "Nafarroa Espainiako batez bestekoaren gainera dago, Europako herrialde aurreratuenen mailan ia-ia, hezkuntza-kalitateari dagokionez". Lehendakariaren esanetan, hori "ondo jardutearen eta adostasunaren emaitza da". Ildo horretatik, Nafarroa 2012 Planaren barruan ikastetxeak eta institutuak eraikitzeko 85 milioi euro inbertitu direla gogorarazi da.

Eraikin berriak, behe solairuarekin, 2.602 metro koadroko azalera eraikia du, eta horietatik 2.406 metro koadro erabilgarriak dira. Haur Hezkuntzako hamalau gela ditu, 60 metro koadro ingurukoak, eta biltegiarako eta komunetarako zuzeneko sarbidea. Erdi inguruan barruko jolas-patioa dago, 490 metro koadrokoa. Era berean, eraikinak 116 metro koadroko psikomotrizitate-gela, hizkuntza- eta informatika-gelak, bi laguntza-gela eta beste areto batzuk ditu, hala nola atezaintza, bulegoak, irakasleen gela, biltegiak eta komunak.

Instalazio berriak maiatzaren hasieratik irekita daude eta Haur Hezkuntzako ikasleak hartzen dituzte. Orain arte, ikasle horiek Alhama institutuko ikasleen eraikin berean zeuden. Beraz, jardun horren bidez, 3 eta 12 urte bitarteko ikasleak inguru berean bateratu dira, Haur Hezkuntzakoak (223) eta Lehen Hezkuntzakoak (453).

Bestalde, 22x44 metroko pista estalia eraiki da, areto-futbolera, saskibaloira eta eskubaloira, eta egon dauden patioak hobetu dira. Zehatz esanda, zoladura jarri da eta kirol-pistak markatu dira –areto-futboleko hiru, atletismoko bat, badmintoneko bat eta boleiboleko bat-. Horrez gain, haurrentzako jolasen ingurua eta lorategia egin dira, eserlekuekin eta zuhaitzekin. Guztira, jardunak 9.000 metro koadro hartu ditu.

Lanak 2010eko urritik 2011ko maiatzera egin dira. Proiektua Blasco Esparza y Asociados enpresak diseinatu zituen eta lanak Azysa Obras y Proyectos, SL gauzatu ditu. Jarduna "giltza eskuan" sistema erabiliz egin da, bi espediente bakar batean bilduta (proiektuaren idazketa eta lanak zuzendu eta gauzatzea), eta horri esker epeak laburtu dira.



Corellako ikastetxe publikoaren kanpoaldea.